## INDUSTRIA ETA MERKATARITZA ETA EKONOMIA ETA HERRIOGASUN SAILAK

1771

Uztailaren 15eko 167/1986 DEKRETOA, Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako B.A.-ari Igorreko Industrialdea S.A.-an partzuergoa izateko baimena emanez.

Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua sortarazteari buruzko Ekainaren 10eko 5/1981 Legeko 4. artikuluko 2. idazatiak dioenez, aipaturiko Baltzuak, Eusko Jaurlaritzak aurrez baimena emanda eta bakoitzean zehaztu daitezen modutan, zudu bereziko izan daitezen enpresen baltzu-domuen zatiak hartu ahal izango ditu.

Halaber, Uztailaren 27ko 14/1983 Legeko 44. artikuluko 2. idazatiari buruz Ekainaren 22ko 12/1983 Legeko 24. artikuluko 3. idazatian jartzen denez, Jaurlaritzak, Dekretoz, Autonomia Elkarteko Erakunde Mailako Enteei ezein moetako bazkun sortarazteko eta horietan partzuergoa izateko baimena eman ahal izango die.

Hori dela eta, Industria eta Merkataritzarako eta Ekonomia eta Herriogasunerako Sailburuen proposamenez, Jaurlaritzak 1986.eko Uztailaren 15ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, zera

ERABAKITZEN DUT:

*1. Artikulua.*– Igorreko Industrialdea, S.A. Baltzu Anonimoan partzuergoa izateko baimena ematen zaio Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzuari.

*2. Artikulua.*– Igorreko Industrialdea Baltzu Anonimoaren baltzu-domua 205.000.000 (berrehun eta bost milloi) pesetakoa izango da eta Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzu Anonimoak domu horretan %51ko partzuergoa izango du, hots: 104.550.000 (ehun eta lau milloi bostehun eta berrogeita hamar mila) pesetakoa.

*3. Artikulua.*– Aipaturiko Baltzua, Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzuaren arauek agintzen dutenez, Eskribauaren aurrean aurkeztuko da IGORREKO INDUSTRIALDEA, S.A. Baltzua sortarazteari dagokion eskribau agiria izenpetzeko, horren bidez, Baltzu-Araudiak onartuta, horren Administraziorako Ihardutze-Sailen izendapenak eginda, aginte zehatzak emanda, partzuergo zatia finkatuta eta akzioak, eta egitasmo hori egiteratzebidean jartzeko, bidezko jotako gainontzeko erabakiak izenpetuta gelditiko direla.

AZKEN ERABAKIA

Dekreto hau, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara dadineko egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1986.eko Uztailak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industria eta Merkataritza Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

Ekonomia eta Herriogasun Sailburua,
FERNANDO SPAGNOLO DE LA TORRE.

## DEPARTAMENTOS DE INDUSTRIA Y COMERCIO Y ECONOMIA Y HACIENDA

1771

DECRETO 167/1986, de 15 de Julio por el que se autoriza a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. la Toma de Participación en la Sociedad Igorreko Industrialdea S.A.

El artículo 4º, apartado 2, de la Ley 5/1981, de 10 de Junio, sobre creación de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A., establece que la citada Sociedad podrá participar en el capital social de empresas de particular interés, previa autorización del Gobierno Vasco y en las condiciones que se determinen.

Así mismo, el artículo 24, párrafo tercero, de la Ley 12/1983, de 22 de Junio, en relación con el artículo 44, párrafo segundo, de la Ley 14/1983, de 27 de Julio dispone que el Gobierno, mediante Decreto podrá autorizar a los Entes Institucionales de la Comunidad Autónoma, la creación y participación en sociedades de cualquier clase.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros Titulares de los Departamentos de Industria y Comercio, y Economía y Hacienda, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 15 de Julio de 1986.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se autoriza a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A., a participar en la constitución de la Sociedad Anónima Igorreko Industrialdea, S.A.

*Artículo 2.*– La Sociedad Igorreko Industrialdea, S.A., tendrá un capital social de 205.000.000 (doscientos cinco millones ) pesetas, en el que la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. participará con el 51%, equivalente a 104.550.000 (ciento cuatro millones quinientas cincuenta mil) pesetas.

*Artículo 3.*– El Organo designado, de acuerdo con las normas reguladoras de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A., comparecerá ante Notario a los efectos de suscribir la Escritura de Constitución de Igorreko Industrialdea, S.A., aceptando los Estatutos Sociales, formalizando la designación de sus Organos de Administración, confiriendo los poderes precisos, fijando la aportación, suscribiendo acciones y los demás acuerdos que resulten adecuados para la puesta en ejecución del expresado proyecto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz a 15 de Julio de 1986.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria y Comercio,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

El Consejero de Economía y Hacienda,
FERNANDO SPAGNOLO DE LA TORRE.